

1. BALIO PROPOSAMENA

EuskalTour ez da nolanahiko bidai agentzia bat. Izan ere, modu sinple eta errazean, **jasangarritasunaren eta gure lurraldearen irakunkortasunaren aldeko apostua** egiten duen agentzia da. Edozein printzipioren gainean, gure txokoetako natura eta paisaiak maitatu, errespetatu eta modu inklusioan ezagutarazi nahi ditugu. Horretarako ingurumenaren babeserako beharrezkoak diren jokabideak bultzatzen ditugu. Txirrindula izango da gure garraio bidea eta kutsadura gutxitzeko hornidura sistemak erabiliko ditugu.

Kirolaren bitartez, jendea gure herriaren ohitura eta paisaietara gerturatzea bilatzen dugun eanean, **gure kulturaren transmisioa** egitea ere helburu dugu. Eta nola ez, kirola oinarri hartuta, **bizitza ohitura osasungarriak** zalantzea ere bilatzen dugu.

Inklusibitatearen aldeko apostua ere egiten dugu; izan ere, pertsona guztientzat egokitutako zerbitzua eskeintzen dugu; adibidez, gurpildun aulkian dagoen pertsona bat gure ibilbideak egin ditzake bizikleta berezi batekin. Tandem txirrindulak maneiatzen ditugunez ere, ikusmen urritasuna duten bezeroak ere izan ditzagu. Irisgarritasun printzipioak betetzen dituzten ekintzak antolatuko ditugu, betiere.

Diskriminaziotatik kanpo egongo den jokabide eta jardunbideak bakarrik onartuko dira gure enpresan eta giro ona, atsegina eta bezeroen ongizatean oinarritutakoa bultzatuko dugu momentuero.

Gure enpresan pertsonak dira abiapuntu. Pertsonak zaintzea, maitatzea eta errespetatzea dugu irizpide. Ildo horretan, pertsonen elkarren artean ezagutzeko aukera emateaz gain, bakoitzaren behar, interes eta nahiak moldatutako taldeak osatuko ditugu, gure bezeroak etxean bezala, eroso, sentitu daitezen. Hori dela eta, **zerbitzu pertsonalizatua** eskeiniko dugu, taldeak eta bidaiak diseinatzeko orduan. Taldeak osatzeko orduan adina kontutan hartuko duugun arren, aldez aurretik, bezeroaren nahiak ezagutzeko elkarriketa pertsonalizatuak burutuko ditugu, euren motibazioak eta ezaugarriak ezagutzeko.

Aldi berean, **bezeroentzat erraztasuna eta erosotasuna** bilatzen dugu. Horregatik, turismo zerbitzu integrala eskeintzen dugu. Gure bezeroek ez dute ezer antolatu beharko, guk bidai osoaren plangintza prestatu eta egunean eramango dugu.

Guretzako, bai gure lurraldearen garapen ekonomikoa baita gure bezeroen behar ekonomikoetara egokitzeko beharra, printzipio garrantzitsuak dira. Horregatik, alde batetik, tokian tokiko merkataritza bultzatuko dugu, bertan kontsumitzeko aukera luzatuz. Bestetik, iraunkortasun printzipioetan oinarritzen garenez (txirrindulaz egindako tourrak, birziklatutako materiala...), eskeintzen dugun zerbitzuaren kostua txikituko da eta horrek bidaiak ahalik eta merkeen diseinatzea ahalbidetuko digu.